



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

Herritar hori:

Duela gutxi amaitu da herritar guztioi parte hartzeko eta herriaren eguneroko premia nagusiak identifikatzeko aukera eman digun partaidetza-prozesua, zeinaren bitartez beharrian garrantzitsuenei lehentasuna emanaz urteko Aurrekontuan sartu diren.

Udalak esku-hartzeko proposatu diren udalerriaren lehen premiak, prozesuan parte hartu duten pertsonen arabera, **enplegua**, **gardentasuna** eta **gizarte-laguntzak** dira, horien konponbideak ere aztertu eta eman direlarik.

Herritarrek egindako proposamenen ondorioz ageri-agerian geratu da beharrianak eta premiak asko direla, eta guztiei behar bezala erantzuteko aukerarik ez badago ere, udaleko teknikariek herritarren proposamen bakoitzaren inguruan eginiko txostenetan gehienak onartu egin daitezkeela jasotzen da, eta hala jasoko da 2014 urterako orain egingo den Aurrekontuan eta ondorengoetan.

Nahi izanez gero, www.ermua.es udal web-ean kontsultatu eta ikus dezakezu osorik herritarrek egindako proposamenen inguruko txosten teknikoaren edukia.

Halaber, datorren ostegunean, **urtarriaren 30ean, Lobiano Kultur Gunean** izango den informazio-bilerara gonbidatzen zaitut, **arratsaldeko 19:00etan**, partaidetza-prozesu horren berri jakitera eta aipatutako txosten teknikoaren edukiaren inguruan izan ditzakezun zalantzak argitzera.

Udaletik azken hilabeteotan izan den partaidetza-prozesuan parte hartu duzuen pertsona guztiok egindako ahalegina bene-benetan eskertzen dizuegu, guztiz aberasgarria dela uste baitugu hausnarketarako espazioak sortzeko ekimenetan aurrerapausoak ematea eta herritarrek beraian eragina duten gaietan zuzenean esku-hartzea, Udal Aurrekontuaren prestaketan kasurako.

Agur bero bat.

2014ko urtarrilaren 23an

ALKATEAK,

Sin.: Carlos Totorika Izagirre